

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Osasun Zerbitzuak-Osasunbideak 104 plaza atera ditu Osasunaren Zientzietan espezialistak trebatzeko

Plaza horiek eskuratzeko hautapen-probak 2019ko otsailaren 2an egitea aurreikusten da

Ostirala, 2018.eko irailak 14

Nafarroako Osasun Zerbitzuak-Osasunbideak (NOZ-O) guztira 104 plaza atera ditu Osasunaren Zientzietan espezialistak trebatzeko unitate eta zentro ezberdinetan, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioak 2018-2019 denboraldirako egindako deialdian agertzen denaren arabera; deialdia gaur argitaratu da [Estatuko Aldizkari Ofizialean](#). Plazak eskuratzeko hautapen-probak 2019ko otsailaren 2an egingo dira.



Lehengo urteko ate-irekien momentuetako bat.

Guztira, Nafarroak 146 plaza deitu ditu, eta horietatik 42 Nafarroako Unibertsitate Klinikoarenak dira. Lanbidearen arabera, plazak hauek izango dira: 125 plaza Medikuntzan (90 NOZ-On eta 35 NUKen), 9 Farmazian, 5 Erizaintzan, 3 Psikologian, 2 Biologian eta 2 Erradiofisikan.

Aurreko deialdiarekin alderatuta, Medikuntzako profesionalentzako plazak gehitu dira (123tik 125era) eta Erizaintzako plazak murriztu (9tik 5era). Orokorrean eta Erizaintzan izan den jaitsiera gertatu da deialdi honetan emaginen plazak ez eskaintzeagatik NUKeko Erizaintza Obstetrikoginekologikoko Irakaskuntza Unitatean, segidako deialdietan 4/0 plazako alternantzia-serieari jarraituz.

NOZ-O-ko 104 plazetatik, 62 Ospitale Gunekoak dira, 30 Lehen Arretakoak, 9 Osasun Mentalekoak, 2 Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatekoak eta 1 Prebentzio eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitatekoak. Aurreko deialdiarekin alderatuta, NOZ-Oren eskaintzan plaza bat gehiago sartu da, Laneko Medikuntzako Irakaskuntza Unitatearena, egungo deialdian 2 plaza deitu baititu, segidako deialdietan 2/1 alternantzia-seriea jarraituz.

NUKek, bestalde, 42 plaza eskaini ditu, aurreko deialdian baino bat gehiago.

Guztira, 46 espezialitatetan eskaini dira plazak, eta horiei buruzko xehetasuna EAOn kontsulta daiteke. Otsaileko azterketaren ondoren,

plazak apirilean zehar esleituko dira, eta prestakuntza-denboraldiari maiatzean emango zaio hasiera. Deialdian eskaerak aurkezteko epea datorren astelehenetik, irailaren 17tik 26ra luzatuko da.